

EUSKEREA

—Guk bizkaieraz, Dabid'en burrukea.

—EGIN batuz, DEIA?

Euskera errikoian argitaratuko dan ZER illerokotxu apal onegaz erdi-

batera, eguneroko indartsu bi agertuko dira edo agertu dira: DEIA bagillean eta EGIN iraillean, diñoenez. Biak «euskera batuan» izango ei dira...

Gure bizkaiera errukiorraren bizigurea ta orretarako burrukea «Dabid eta Goliat»-en artekoa dirudi. Baiña zer arraio! Eutsi daigun geureari ta gerorako kukurrukuak!

GURE ATHLETIC

—Len bateratzaille.

—Orain politika-jokoa: onerako?

Bizkaitarrontzat bateratzaille izan dan gure Athletic, arriskuan ikusten dogu giza-bizitza aldctik.

Urterik txarrenc tan, euskaldunen ikurrintzat euki gendun, beste «gora»rik esaterik ez egoalako.

Baina orain, politikagaz, (len be bai?) nastatu dala deritzagu.

Batzuk auteskundeetan irabazle urten dabe, beste batzuk galtzaille, betiko moduan.

Ortik banakuntzea ta asarrea datoz bazkideen artcan.

Onerako? Txarrerako?

Geroak erantzuna, baina gure gus-toko oinkadea ez dala izan autortzera ausartzen gara.

POLITIKEA

—Siglak eta barriketak.

—Aurrelari barriak.

Sigla edo «letra-saltza» ormetan eta «paper» guztietan; itzaldi ta mitiñak nun-nai; beste barriketarik ez etxeetan, tabernetan, lagun artean eta lantegietan.

Lantegiak txarto doazela? Ta zer? Felipe Gonzalez'ek konponduko ditu... edo «anai Santiago'k»,

Zer sortuko etc da?

Guk «histori» bako alderdi ta alderditxu asko ikusten ditugu, erdipurdizkoak.

«Histori» luze ta aundidun alderdi batzuetan «histori» gitxiko gizonak aurretik. Olakorik entzun gura be ez eurak. Bai ba, atzo goizekoak dira ta...

Olako egoeran, odei baltz artean, geroke eguzkiak nundik nora urtengo dauan. Jaungoikoak bakarrik daki.

Dana dala, gogorra ta artetegagarria, «Jaungoikoa ta Lcga Zarra» orregan sinisten dogunontzat.

MU EGAI\

ARRA TIA' TIK

AKEITA ETA KAFEA

Euskerea politikatu ta erderatuten diardun batek, akeitari ta kafeari buruz, onan: Kafeari akeita deitzea sabindarkeria ta garbikeria besterik ez ei da. Euskeraren kalterako astakeria.

Akeita, antziñan bateko napartarrak bedar berezien baten egos-tetik ateraten eben saldea ei zan, kafea agertu zanean ezetsia ta bazterreratua.

Orain, teilleari buruz, nire aburu ta eretzia emen:

Teillea asmatu geroztiko etxe ta bizilekuen goi-ganak teillaz esaltzen asi ziran, gizaldietan zear egundaño jarraituz. Gaur-egun ba dagoz orraitio burdinkizko, beira, leiarkizko, uralita eta zementoz estaldutako etxeak. Zergaitik, zer dala ta, deitzen dautsegu teillatua eta zergaitik ez burdinkitua, beira-tua, edota, kristaltua, uralitatua zementotua t.a.?

Orren pekatu aundia ete da, gai barriai izen zarra ezartea?

LANDAJCELA'tar Andoni'k